

## Informazioa zabaltzen

IKASKETAK, LANBIDEAK ETA GENERO  
ESTEREOTIPOAK

## ...Ezagutzen...

Lorena Fernandez Alvarez

# Lan orientazio ez sexista



# INFORMAZIOA ZABALTZEN

Ikasketak eta lanbidea aukeratzean dagoen genero-arrakala erreala da gaur egun oraindik. Horren erakusgarri da ikasle emakumeek duten joera handiagoa hezkuntzarekin, osasunarekin eta zaintzarekin lotutako ikasketak aukeratzeko orduan, eta gizon ikasleek, berriz, gradu eta heziketa-ziklo zientifiko-teknologiko eta industrialak aukeratzen dituzte, nazio eta nazioarteko hainbat ikerketen eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datu estatistikoen arabera. Izan ere, genero-estereotipo eta rolek egiteko garrantzitsua dute oraindik gizon eta emakumeen aukeraketa akademiko eta profesionalean. Espektatiba eta arau sozial horiek eragina dute pertsonen eremu jakin batzuetan norbere gaitasunak eta aukerak hautemateko orduan.



Judith Butler filosofo eta genero-teorikoaren arabera, genero-estereotipoak arauak eta itxaropenak dira, eta pertsonen beren generoaren arabera nola jokatu duten arautzen dute. Butlerren arabera, genero-estereotipoak gizartea arautzeko modu bat dira, eta onartzen diren genero-arauak betetzeko nola jokatu behar dugun agintzen dute. Gainera, uste du kontzeptu horiek ezaugarri eta rol maskulinoak eta femeninoak dauden uste horretan oinarritzen direla, eta horrek mugatu egiten dituela identitate-aniztasuna eta genero-adierazpena.

Estereotipoek eta genero-rolek modu desberdinean eragiten diete emakume eta gizonei aukeraketa akademiko-profesionala egiteko orduan.

Tradizionalki, emakumeen aukerak mugatu dituzte; izan ere, emakumeak hezkuntzarekin, zaintzarekin eta gizarte-zientziekin lotutako alorretara jotzea espero da, eta horrek zientzia, teknologia, ingeniaria eta matematika (STEM) bezalako arloetako karrerak baztertzea ekar dezake. Gainera, emakumeen autoestimuari eta konfiantzari eragiten diete, eta, azkenean, arlo teknikoetan edo zientifikoetan dituzten trebetasunak gutxiesten dituzte, "gizonentzako eremuak" direla uste dutelako.

Hala ere, gure gizartean hain errotuta dauden genero-rol eta estereotipoek ere mugatzen dute gizonek esparru akademiko-profesionalean izan dezaketen aukeratzeko askatasuna. Adibidez, genero-rol tradizionalak familiaren hornitzaile nagusia izatearen presioa ezar diezaiekete gizonei, eta horrek eragina izan dezake karrera prestigiotsu edo entzutetsuak aukeratzeko orduan, beraien benetako interesak islatzen ez badituzte ere.

Nuria Varela kazetari eta idazlearen arabera, "Feminismo para principiantes" (Hasiberrientzako feminismoa) liburuaren autorea eta genero eta feminismo gaietan egindako lanagatik ezaguna, hainbat dira genero-rolak eta estereotipoak hedatzeko mekanismoak, baina horien artean honako hauek aurki ditzakegu:

Sozializazioa haurtzarotik: txikitatik, haurrak genero-roletan sozializatzen dira, familien, jostailuen, liburuen eta kulturaren bidez.

Hezkuntza tradizionala: hezkuntza formalak, Varelaen arabera, genero-estereotipoak iraunarazten ditu askotan, izan ikasketa-planetan, testuliburuetan, komunikazioan edo ikasgelako harreman edo elkarreraginean. Neskek etsipen sentimendua garatu dezakete zientzia eta teknologia arloetan; mutilak, berriz, presionatuta senti daitezke kirol eta matematika arloetan gailentzeko.

Komunikabideak eta publizitatea: zeregin garrantzitsua dute genero-estereotipoen hedapenean. Nabarmentzekoa da hedabideek emakumeak estereotipatuta irudikatzen dituztela askotan, haien itxura fisikoa nabarmenduz eta rolak etxeko eta zaintza lanetara mugatuz.

Hala ere, hezkuntza esparruan, hainbat ekintza eta programa eraman daitezke aurrera ikasketen eta lanbideen hautaketan, genero-baldintzatzaileak neutralizatzeko helburuarekin.

## 1 HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZATIK HEZKIDETZA-PROGRAMAK EDO BERDINTASUNEAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA BERMATZEA.

UNESCOren arabera, #SuEducaciónNuestroFuturo #RompeElSesgo txostenean. Genero-estereotipoak eta genero-joerak zalantzan jarri eta horren bitartez (2022) adin goiztiarretik genero-berdintasunean heztea beharrezkoa da, generoarekin loturiko estereotipoak ezabatzeko. Hauek dira gomendatzen dituen ekintza espezifikobatzuk:

- ✓ Hezkuntza-materialetako eduki sexista ezabatu.
- ✓ Testuliburuetan eta hezkuntza-baliabideetan emakume erreferente gehiago sartu.
- ✓ Irakaslea hezkidetzara bideratutako metodologia pedagogikoetan trebatu.
- ✓ Berdintasuna curriculumean txertatu eta sexu-hezkuntzako irakasgai bat ezarri.
- ✓ Aniztasuna bermatu irakasle-taldeetan.
- ✓ Etxean genero-berdintasuna praktikan jartzen duten familien arteko praktikak sustatu, eta horretan laguntzeko hitzaldi eta jarduerak antolatu ikastetxeetan

## 2 ERREFERENTE FEMENINOAK ETA MASKULINOAK SUSTATU

Gazteek beren burua islatzeko erreferenterik ez izateak helduaroan izan nahi duten horren aukeraketa baldintzatzen du. Adibidez, maskulinizatutako eremuetan arrakastatsuak diren emakumeak ikusarazteak lagundu dezake neska gehiago haiekin identifikatuta sentitu eta bide bera jarraitzen. Aitzitik, zaintzarekin loturiko lanbideetan gizonen jarduna ikusaraztea ere beharrezkoa da, hauek sektore feminizatueta erakartzeko.

### GUREAN ALDIZKARIA

## 3 HEZKUNTZA-KOMUNITATE OSOA HEZTEA, GENERO-JOERA HAUSTEKO

Horretarako, beharrezkoa da hezkuntza arloko irakasle eta profesional guztiei berdintasunaren arloko prestakuntza eskaintzea. Prestakuntzak jarraitua eta praktikoa izan behar du. Familiakoekin partekatutako hezkidetzak programak eskainiz indartu daiteke, ikastetxeetan berdintasun-taldeak sortuz...

## 4 GENERO-JOERARIK GABEKO ORIENTAZIOA BERMATZEA

Orientazio akademiko eta profesionalak funtsezko eginkizuna du ikasleen ikasketak aukeratzeko orduan genero-joerak murrizteko. Horregatik, orientazioko profesionalak informazioa neutrala, zehatza eta osoa eman behar diete ikasleei, eskura duten eskaintzaren artean askatasunez erabaki ahal izateko, jakintzaz eta autonomiaz.

Horretarako, ekintza hauek egin daitezke:

- ✓ Orientazioko profesionalak generoaren ikuspegitik prestatu.
- ✓ Adin goiztiarretik eskola-irakasgaietan orientazioa sartu.
- ✓ Esparru akademiko eta profesionalean genero-joerak hausten duten orientazio-proiektuetan parte hartu.



# LORENA FERNANDEZ ALVAREZ

Informatikako ingeniaria da, Deustuko Unibertsitateko nortasun digitaleko zuzendaria eta Inspira STEAM programako aholkularia.

**Berdintasunean oinarritutako gizarterantz bidean, azken urteotan pauso handiak eman ditugun arren, zein unetan aurkitzen gara genero-joerarik gabeko ikasketak eta lanbideak aukeratzeari dagokionez?**

Bitxia da, adibidez, 1985-86 ikasturtean Ingeniaritza Informatikoa bezalako titulazioetan matrikulazioen %30,12 emakumezkoenak izatea, eta, hala ere, 2020-21 ikasturtean emakumeen matrikulazioak %13,39 izatea. Izan ere, matematikako titulazioetan

bezala, hasiera batean gizonezkoak baino emakume gehiago zeuden matrikulatuta, guraize-efektua gertatzen da titulazio horietako irteera profesionaletan. Irteera profesionalei dagokionez, ikastetxeetan, institutuetan edo beste nonbaiten eskolak emateko orduan, matematikan gizonezkoak baino emakume gehiago zeuden. Baina adimen artifizialari edo Big Data-ri lotutako lanbideei dagokionez, izugarri aldatzen dira datuak.

Baina, zergatik gertatzen da hau? Esparru akademikoan, "tantaka dabilen hodia" (La tubería que gotea) izeneko fenomeno batez hitz egiten dugu, ondo erakusten baitu nola gurutzatzen diren hainbat faktore, hainbat zulo edota hutsune, bizitzako etapetan hurrek titulazio batzuk edo besteak aukeratzeko orduan.

Emakumeei loturiko hutsuneetako bat konfiantza falta da. Hutsune ikaragarria da, emakumezkoen talentuak bertatik egiten baitu ihes eta ez da iristen Lanbide Heziketa edo Unibertsitateetara. Konfiantza falta hori txikitatik dator, Scienceko azterlan famatuak dioenez, 6 urteko neskek beraien adineko mutilak baino gaitasun txikiagoa daukatela uste da. Gogoan dut HPren (ordenagailu-marka) azterlana: barne-sustapeneko prozesuetan, emakumezko langileak zerrendatutako baldintzen %100 betez gero aurkezten ziren. Gizonezko langileak, berriz, eskatutako betekizunen %60 bakarrik beteta ere, aurkeztu egiten ziren.

Erreferentzia falten hutsunea ere badugu, batez ere hurbileko erreferenteena. Batzuetan, Marie Sklowdoska Curie bezalako erreferenteak erakusten ditugu soilik, eta horrekin zientzia munduan arrakasta izan duten emakumeak, emakume apartak direla soilik esaten ari gara; beraz, emakumeen arrakasta aparteko elementua da zientzian, ez da elementu komuna. Hala, oso garrantzitsua da hurbileko erreferentziak erakustea, egunerokotasunekoak, eta bakoitzaren eremu geografikoa kontuan hartzen dituztenak.

Beste hutsune garrantzitsu bat, inguru hurbila da. Behin irakurri nuen azterlan baten arabera, lehen eta bigarren hezkuntzako etorkizuneko irakasleen ustez, emakumeak hobeak dira hezkuntzan, hizkuntzetan, gizarte-zientzietan eta orokorrean, karrera humanistikoetan. Gizonezkoak, ordea, matematiketan, zientzietan, teknologian, informatikan... Etorkizuneko irakasleek dagoeneko




estereotipo hauek badituzte, “Pigmalion efektua” edo “profezia autokonplutua” bezalako fenomenoekin topo egingo dugu: oso ona zarela esanez gero, edo matematiketan oso ona izango zarela esaten baldin badizute, esaten ari zaizun hori berresteagatik soilik, bete egingo duzu.

Hamaika dira “tantaka dabilen hodia” fenomenoan aurkitu genitzaken hutsuneak. Aipatu nahiko nuen azkena hezkuntza-materialarena da. Duela urte batzuk, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan erabiltzen ziren testuliburuak berrikusi ziren. Hiru argitaletxeren 115 eskuliburu aztertu zituzten. Azterlan horren arabera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasgai guztietan emakumeen presentzia edo agerpena %7,5ekoa zen soilik, eta zifra hori %5era edo %1era jaisten zen zientzia edo teknologia bezalako arloetan. Beraz, material horietan presentziarik ez baldin badugu, genero-rol eta estereotipoak erreproduzitzen jarraituko dugu.

### **Aipatutako hutsune horiek bete nahian, INSPIRA STEAM programa sortu da**

Hala da. Bi hutsune horiek estaltzen saiatzeko premisarekin abiatu da.

Lehenengo hutsunea hurbileko erreferente falta da.



Inspira Steam-en bidez, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasgeletara sartu eta sei “mentoring” saio lantzen ditugu ikasleekin. Ikasgeletara gerturatzen direnak Zientzia eta Teknologia arloetan aritzen diren emakumeak dira, eta inguruko edo ikastetxeko ikasle ohiak lotzen saiatzen gara.

Adibidez, Basaurin ikasketak burutu nituen institutura joan izan naiz eta, zalantzarik gabe, errazagoa da neskontzat honako hau dioen pertsona batekin identifikatzea: “Ni mahai honetan eserita egon naiz, zure herrikoa naiz, ia-ia zure auzokoa ere bai eta, orain, zientzia eta teknologia arloan ari naiz eta, gainera, zuzenean kontatu diezazuket”. Horrela, proiektu honetan lantzen dugun bigarren hutsunea konfiantza falta da, baina ez soilik neskena, baita emakume aholkulariena ere. Horiek, lehenik eta behin, prestakuntza batean parte hartzen dute helarazi nahi ditugun elementu guztiak koordinatu ahal izateko, eta gehiengoak honela dio: “Baina nola izango naiz ni haur hauen erreferente”. Beraz, konfiantza bi aldetatik lantzen dugu: ikasleak eta aholkulariak.

Inspira Steam-ek bilatzen duena ez da zientzia eta teknologia arloan neska gehiago aritzea, baizik eta neska gutxiago egotea zientzia eta teknologia arloak baztertzen dituztenak.

### **Azkenik, zeintzuk dira gainditzeko ditugun erronkak?**

Nire aburuz, une honetan bi erronka handi ditugu. Ekuazio honetan mutikoak sartzea da horietako bat. Arreta neskengan jartzen duten programa askoren aurrean aurkitzen gara, eta ikuspuntu desegokia dela uste dut. Ikuspuntu desegoki honekin neskek alferrik galduta daudela eta arlo zientifiko eta teknologikorako bidea hartzeko konpondu behar ditugula ulertzera ematen dugu. Horrela, garrantzitsua iruditzen zait programa hauek mutiko eta gizonezkoei ere bideratzea, kanpoan daudela ez sentitzeko eta erantzun atzerakoiak saihesteko. Beste erronketako bat izango litzateke feminizatuta dauden, prestigio sozialik ez duten baina funtsezkoak diren lanbideei balio soziala ematea, hala nola, zaintzari.

01

## Ezagutzeko

**Cuatro iniciativas** para que más chicas apuesten por las carreras científico-tecnológicas: Young IT Girls, Spark Girls, Científiques Passat i Present y ChicasInTech son proyectos presentados en el YOMO 2019 que buscan que las mujeres confíen en sus capacidades para dedicarse a la ciencia y la tecnología, y conozcan referentes femeninos en estos ámbitos.

**STEAM EUSKADI:** su objetivo es Impulsar la educación y formación científico-técnica en todas las etapas educativas.

02

## Ikusteko

Ponencia de **Yolanda Dominguez**, artista visual, fotógrafa y activista feminista que desarrolla temas de conciencia feminista y crítica social relacionados con el género, el consumo y el arte como herramienta social: Revelando estereotipos que no nos representan

03

## Ondo pasatzeko

Juegos de mesa para la educación feminista como **HERSTÓRICAS PIONERAS** y Nobel Run.

# DENBORA PASA

# BERRIAK

### Letra-zopa.

Aurkitu hiru lanbide maskulinizatu eta hiru lanbide feminizatu

R	O	P	U	E	T	A	K	R	O	L	U	E	A	A
R	U	R	J	R	G	O	J	I	U	R	J	E	G	O
I	I	A	O	O	K	H	A	I	Z	A	L	K	K	H
F	M	E	K	A	N	I	K	A	R	I	A	O	I	E
E	O	O	A	U	O	A	K	D	A	O	A	I	O	Z
M	I	U	D	I	A	S	H	Z	I	U	D	Z	A	I
I	I	Z	L	T	N	T	T	O	I	Z	L	A	Z	T
N	O	P	A	A	K	I	Z	H	O	P	Z	Z	S	Z
I	Z	Q	N	E	B	A	I	R	O	D	U	E	T	A
Z	U	R	A	R	G	E	J	P	U	R	J	R	G	I
A	R	A	A	O	R	H	A	I	O	A	O	I	K	L
T	G	G	S	O	I	P	F	F	R	A	S	Z	I	E
U	I	O	T	U	O	A	K	D	O	O	A	A	O	A
I	N	F	O	R	M	A	T	I	K	A	R	I	A	N
O	A	Z	L	T	Z	T	E	O	I	Z	L	N	Z	Z
S	Z	P	Z	A	K	A	K	H	O	P	Z	A	K	A

# 1

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 'Berdintasuna, zientzia eta teknologia. Paradigma aldatzea helburu' nazioarteko biltzarra antolatu du urrian Donostian, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen bidez.

[Informazio gehiago](#)

# 2

Berdintasunaren aldeko herri Itunarekin bat egin duten erakundeek euren konpromisoak erakutsi dituzte atxikimendu gehiago batzeko deia eginez

[Informazio gehiago](#)

Zurgina  
Mekanikaria  
Informatikaria

Hezitzailea  
Garbitzailea  
Erizaina

R O P U E T A K R O L U E A A  
R U R J R G O J I U R J E G O  
I I A O O K H A I Z A L K K H  
F M E K A N I K A R I A O I E  
E O O A U O A K D A O A I O Z  
M I U D I A S H Z I U D Z A I  
I I Z L T N T T O I Z L A Z T  
N O P A A K I Z H O P Z Z S Z  
I Z Q N E B A I R O D U E T A  
Z U R A R G E J P U R J R G I  
A R A A O R H A I O A O I K L  
T G G S O I P F F R A S Z I E  
U I O T U O A K D O O A A O A  
I N F O R M A T I K A R I A N  
O A Z L T Z T E O I Z L N Z Z  
S Z P Z A K A K H O P Z A K A